# "Deskontu berriak pauso handia dira, inflazioa arindu eta mugikortasun jasangarria sustatu nahi delako"

***Gipuzkoako bidesarien 2023ko deskontu-planak gizartean, ekonomian eta ingurumenean eragiteko helburua du eta 44 milioi euro inguruko aurrezpena suposatuko du erabiltzaileentzat.***




Urte berriarekin batera, Gipuzkoako gaitasun handiko errepideen erabiltzaileek deskontu-plan berria izango dute eskura, hala partikularrei nola jarduera ekonomikoei zuzendutako beherapen sorta batekin. Are gehiago, Aintzane Oiarbide, Bide Azpiegituretako diputatuaren arabera, plan hau “pauso handia” da, “inflazioaren ondorioak eta erregaien prezioaren igoera arintzen lagunduko duelako, eta, aldi berean, mugikortasun jasangarria sustatuko delako”. Horrela, eta egungo egoera orokorrari begira, Oiarbidek balioa eman nahi izan dio apustu berri horrek BIDEGI-ri suposatuko dion “ahalegin ekonomiko eta tekniko handiari”, eta horrekin batera, “ekonomikoki, sozialki eta ingurumenari dagokionez, eragingo duen onura zuzena” azpimarratu du. Hain justu ere, kopurutan 44 milioi euro ingurukoa da bultzada ekonomikoa, Sailak berak herritarrentzako aurrezpen gisa egindako kalkulua, hain zuzen. Oiarbidek azpimarratu duenez, “inpaktu soziala ere nabarmena da”, “BIDEGI-k bere baliabideen bidez lagunduko baitio garraio publikoari eta kolektiboari”.

Diputatuaren hitzetan, “asmo handiko plana da”, baliabideak “herritarren eta enpresen mesederako” erabiltzen baititu, “bizitzaren garestitzeari eta erregaien eta prezioen igoerari aurre egiteko”. Hala, “gaitasun handiko gure errepideak ere lurraldearen kohesio sozialerako eta lehiakortasunerako azpiegiturak diren heinean”,

diputatuak azaldu du plana “bultzada berri bat” dela “ekonomikoki lehiakorra, sozialki bidezkoa eta ingurumenaren aldetik jasangarria den Gipuzkoa baten alde”.

**Prezioen goraldiari aurre egiteko deskontuak**

Horrela, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, Abiatu sistemaren edo antzeko baten (ViaT edo TAG) jabe diren eta BIDEGI-n alta emanda dauden erabiltzaile partikularrak deskontu-sisteman sartuko dira. Beherapenak ibilgailu arinentzako bidesaria duten errepideetako (AP-1, AP-8 eta A-636) erabiltzaile guztiei aplikatuko zaizkie, jatorria edozein dela ere, Gipuzkoatik kanpoko erabiltzaileak barne. Sistema berriaren berrikuntza azpimarragarria da hau, unibertsaltasuna, behin BIDEGI-n alta eman eta gero.

Zehazki, ibilgailu arinen erabiltzaile partikularrek– turismoen, motorren eta furgoneta txikien jabeek–, bi deskontu mota izango dituzte. AP-1ean, AP-8an eta A-636an, maiztasunaren araberako hileko deskontu progresiboa aplikatuko da. Deskontu hori hileko sei joan-etorrietatik aurrera gauzatuko da, % 25eko deskontutik hasi eta % 75era iritsi arte, 21. igarotzetik aurrera. Gastuaren gehieneko muga 35,25 eurokoa izango da 2023 urtean. Gainera, 0,55eko deskontua gehituko da egun berean Irun, Oiartzun, Orio eta Zarauzko geltokietan bi puntu berdinen arteko joan-etorriko bidaia guztietan.

Autonomoek beren jarduera ekonomikoa garatzeko erabiltzen dituzten ibilgailu arinei dagokienez (taxiak edo anbulantziak, esaterako), maiztasunaren araberako deskontua ere aplikatuko da: 21. bidaiatik aurrera % 10etik hasita eta % 13ra artekoa 51. bidaiatik aurrera; Europako Batzordeak baimendutako gehienekoa, hain zuzen. Azken deskontu hauek urrian sartuko dira indarrean.

**Jasangarritasuna eta mugikortasun berria**

Salgaiak garraiatzeko ibilgailu astunei dagokienez, bi deskontu-kategoria egongo dira. Mugikortasun berria sustatzeko eta ingurumen-jasangarritasuna bultzatzeko, gutxiago kutsatzen duten motorrak dituzten ibilgailu astunek deskontu mota berri bat izango dute. Zehazki, ibilgailu elektriko astunek eta gas- edo hidrogeno-motordunek tarifaren % 25eko deskontua izango dute. EURO 6 kategoriako ibilgailuek % 20ko deskontua izango dute tarifan, eta EURO 5 kategoriakoek % 15ekoa. Beherapenen kategoria hori urtarrilean hasiko da aplikatzen A-636 eta N-I/A-15 errepideetan. AP-1 eta AP-8 errepideetan, ordea, urritik aurrera sartuko da indarrean. Alabaina, beherapen honek atzeraeragina izango du eta, horretarako, BIDEGI-n eskatutako dokumentazioa egiaztatu beharko dute garraiolariek eta ordaintzeko gailu telematiko bat beharko da.

Horrez gain, mota horretako ibilgailuek, kamioi ala garabiek, maiztasunagatiko beherapena izango dute, % 13ko mugaraino, lurraldeko gaitasun handiko errepide guztietan. Deskontu hori urritik aurrera egingo da.

Azkenik, plan berriak garraio publikoko eta kolektiboko ibilgailu astunak ere barne hartzen ditu; hau da, autobusak edo mikrobusak. Deskontua % 50ekoa izango da AP-1/A-8 eta A-636 errepideetan, lehen bidaiatik bertatik. Deskontu hori ere urrian sartuko da indarrean, baina urtarriletik aurrera atzeraeragina izango du kasu honetan ere. Era berean, urritik aurrera, garraio kolektiboek maiztasun-deskontua izango dute errepide horietan.

**Informazioa eta kudeaketa**

Deskontuei eta egin beharreko gestioei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, BIDEGI foru elkarteak jakinarazten du horretarako prest dagoela www.bidegi.eus web orria eta halaber Bezeroaren Arretarako Zerbitzuak Aritzetan dituen bulegoak 08:00etatik 20:00etara irekita daudela, astelehenetik ostiralera. 943 105 106 telefono-zenbakia ere erabiltzaileen eskura jartzen da.

Gestio lanei dagokienez, Aritzetako bulegoak arduratuko dira garraio astunen kasuan egiaztatu beharko den dokumentazioa izapidetzeaz eta balioztatzeaz, urrian ordainduko diren deskontuen atzeraeraginezko onura jaso ahal izateko. Agiri horiek bulego horietan aurkez daitezke dagoeneko.

Zarautz 2022-12-29

## “Los nuevos descuentos van más allá, paliando la inflación a la vez que se fomenta la movilidad sostenible”

***El plan de descuentos de los peajes de Gipuzkoa para 2023 tendrá impacto social, económico y medioambiental, y se traducirá en un ahorro para la ciudadanía de cerca de 44 millones de euros.***




Con la entrada del nuevo año, las personas usuarias de las carreteras de alta capacidad de Gipuzkoa se beneficiarán de un nuevo plan de descuentos, dirigido tanto a particulares como a actividades económicas, y que, según la diputada de Infraestructuras Viarias Aintzane Oiarbide, “va más allá” en su búsqueda de “paliar los efectos de la inflación y la subida del precio de los carburantes, a la vez que se fomenta la movilidad sostenible”. De esta manera y en vista de la situación general actual, Oiarbide ha querido poner el énfasis en el “gran esfuerzo económico y técnico” que esta nueva apuesta implica para BIDEGI, y el “beneficio directo” que supondrá para la ciudadanía económicamente, socialmente y medioambientalmente. Precisamente, este impulso se traduce en una cifra de cerca de 44 millones de euros, como estimación del propio Departamento en concepto de ahorro para la ciudadanía y que, según ha recalcado Oiarbide, su impacto “también será social, puesto que BIDEGI contribuirá con sus propios recursos al fomento del transporte público y colectivo”.

En palabras de la propia diputada, se trata de “un ambicioso plan para poner los recursos a disposición de la ciudadanía y de las empresas, a la hora de hacer frente al encarecimiento de la vida y la subida de carburantes y precios”. “Nuestras carreteras de alta capacidad son también infraestructuras para la cohesión social y la competitividad del territorio”, ha explicado la diputada, y considera el nuevo plan como “un nuevo impulso para seguir apoyando una Gipuzkoa competitiva económicamente, socialmente justa y medioambientalmente sostenible”.

## Descuentos ante la inflación

De este modo, a partir del 1 de enero de 2023 las y los usuarios particulares que cuenten con el sistema Abiatu o similar (ViaT o TAG) y estén dadas de alta en BIDEGI se beneficiarán del nuevo sistema de descuentos. Las rebajas se aplicarán a todas las personas usuarias de las carreteras con peaje para vehículos ligeros (AP-1, AP-8 y A-636, en concreto) sin distinción de su procedencia, incluyendo los usuarios de fuera de Gipuzkoa. Esta es una de las novedades destacables del nuevo sistema que se aplicará a todos los vehículos ligeros que dispongan de un sistema de TAG, cualquiera que sea su procedencia, y se hayan dado de alta en BIDEGI.

Concretamente, las y los usuarios particulares de vehículos ligeros como los turismos, las motos y las furgonetas pequeñas disfrutarán de dos tipos de descuento. Tanto en la AP-1 y en la AP-8 como en la A-636, se aplicará el descuento progresivo mensual por frecuencia. Este descuento se aplicará a partir de los seis tránsitos mensuales, comenzando desde un 25% de descuento hasta alcanzar el 75%, a partir del tránsito número 21. El tope máximo de gasto se mantendrá en 35,25 euros durante 2023. Además, también se sumará un descuento de 0,55 en todos los viajes de ida y vuelta entre dos puntos en una misma jornada en las estaciones de Irun, Oiartzun, Orio y Zarautz.

En relación a los vehículos ligeros empleados por las personas autónomas para el desarrollo de su actividad económica como, por ejemplo, taxis o ambulancias, el descuento se aplicará también por frecuencia a partir del viaje número 21 con un 10%, hasta el porcentaje 13% a partir del número 51, el máximo permitido por la Comisión Europea. Estos últimos descuentos entrarán en vigor en octubre.

## Sostenibilidad y nueva movilidad

En cuanto a los vehículos pesados de transporte de mercancías, habrá dos categorías de descuento que se podrán sumar. Con el fin de fomentar la nueva movilidad y favorecer la sostenibilidad ambiental, los vehículos pesados con motores menos contaminantes disfrutarán de un nuevo tipo de descuento. Concretamente, los vehículos pesados eléctricos, de motor de gas o de hidrógeno se beneficiarán de un 25% de descuento sobre la tarifa. Los vehículos de categoría EURO 6 de un 20% y los de categoría EURO 5 de un 15% de descuento sobre la tarifa. Esta categoría de descuentos se empezará a aplicar en enero en las carreteras A-636 y la N-I/A-15. Sin embargo, en las carreteras AP-1 y AP-8 será efectiva a partir de octubre, pero la rebaja tendrá carácter retroactivo desde el momento en que se acredite y valide la documentación requerida por BIDEGI y se disponga de un dispositivo telemático de pago.

Adicionalmente, este tipo de vehículos como camiones o grúas disfrutarán también de la rebaja por frecuencia, hasta un límite de 13%, en todas las carreteras de alta capacidad del territorio. Este descuento se hará efectivo a partir de octubre.

Por último, el nuevo plan incluye también a los vehículos pesados de transporte público y de transporte colectivo, como autobuses o microbuses. El descuento será del 50% sobre las tarifas desde el primer trayecto en las carreteras AP-1/A-8 y A-636. También este descuento entrará en vigor en octubre, pero tendrá carácter retroactivo desde enero en este caso. De la misma manera, los transportes colectivos se beneficiarán en dichas carreteras del descuento por frecuencia a partir de octubre.

**Información y gestiones**

Para más información sobre los detalles de los descuentos y las gestiones a realizar, la sociedad foral BIDEGI señala que se pueden hacer a través de la web www.bidegi.eus y también en las oficinas del Servicio de Atención al Cliente en la GI-20 en Aritzeta, abiertas de 08:00 h. a 20:00 h. de lunes a viernes. También se pone a disposición de las personas usuarias el número de teléfono 943 105 106. En cuanto a las gestiones, las oficinas de Aritzeta se encargarán de la tramitación y validación de la documentación que en el caso de los transportes pesados deberá acreditarse para beneficiarse de manera retroactiva de los descuentos que se harán efectivos en octubre y cuya documentación ya se puede presentar en dichas oficinas.

Zarautz 2022-12-29